

Arau orokor moduan, ospitalean ingesatzerakoan, paziente eta sendikoei adieraziko zaie ez gordetzeko diru kopuru handirik, bitxirik edo beste baliozko objekturik egonaldiak dirauen bitartean.

Salbuespen moduan eta bereziki ospitaleratze URGENTEA duten pazienteek, euren diru eta beste baliozko objektuak utzi ahal izango dituzte, laguntzaile edo sendikoak iritsi bitartean, gure zentroetan egokitutako dependentzietan.

Ahal izanez gero, baliozko objektuak entregatuko dira pazienteak bere sendiak edo laguntzaile batek lagun egin bezain pronto.

1. Norberaren gauzak jaso bitartean

Larrialdi zerbitzura iristean, hartu egingo zaizkio:

- **Arropa:** pazientearen izen-abizena daraman zigilatutako poltsa batean sartuko dira eta destino unitatera eramango da. Hilko balitz, sendikoei emango zaizkio egongo balira, edo aurkako kasuan, Araba ESIko heriotza prozeduran ezarritako argibideei jarraituko zaie. [Procedimiento Fallecimientos OSI ARABA V.1.pdf](#).
- **Baliozko objektuak (dirua, bitxiak, dokumentuak)**
 - Pazienteak sendiaz edo beste edozein laguntzailez lagundurik egonez gero, haren baliozko objektuak emango zaizkio eta istorio klinikoan erregistratuko dira. Ingresoak irauten duen bitartean dirua edo beste baliozko objektuak ekiditeko ahokatuko zaio.
 - Pazienteak ez badago laguntzaile edo sendiaz lagundurik, edo une horretan ez badaude, zentro bakoitzean dagokion langileari abisua emango zaio.
 - AUO Txagorritxu: zeladoreen arduraduna (txanda guztietan)
 - AUO Santiago: segurtasun langileei (txanda guztietan)

Bi kasuetan langile horiek izango dira (zeladore edo segurtasunekoak), **KAXARAKO OBJEKTUEN ZAINTZA** inprimakia (**I Eranskina**) emango dutenak, eta arretaz beteko da (pazientearen izena, zaindu beharreko objektu edo/eta dirua, segurtasun/zeladore langilearen izenpea, eta lekuko edo/eta paziente, sendi edo laguntzailearen izenpea). Inprimaki honen kopia bat egingo da eta pazienteari emango zaio babesgarri moduan. Ondoren, inprimaki originala objektuekin batera horretara bideratutako gotor kutxan gordeko da.



2. Norberaren gauzak jasotzeko

- Paziente edo sendiak hala eskatuta, eta unitateko langile sanitarioari abisua emanaz gero, jasotzeaz arduratu den langileak (zeladoreen gainbegiralea AUO Txagorritxun eta segurtasuneko langileak AUO Santiagon) norberaren objektuak erretiratu ahal izango ditu gotor kutxatik eta paziente, sendi edo baimendutako pertsonari entregatuko dizkio, behin **Norberaren efektu atala** bete ondoren.
- Norberaren objektu nori entregatu behar zaizkion zalantza izanez gero (sendia artean gatazka susmoa) edo objektu pertsonal horiek inork ez balitu eskatuko, pazientearen heriotzatik astebete pasatuz gero, hartu kontutan honako hauek:
 - Norberaren objektuak arropa bakarrik izanez gero, heriotza prozeduraren arabera jokatuko da, arestian aipatu moduan.
 - Norberaren objektuak baliozko direnean, Erkidegoko edo Tokiko Poliziari emango zaizkio, eta hauek izango dira zaintzaren eta balizko onuradunen bilaketaz kargu egingo direnak, egon baldin badaude.
 - Poliziak baliozko objektuak nori entregatu izango ez balu, erakundeari bueltatu beharko dizkio. Kasu honetan, zentroko zuzendaritzarekin harremanetan jarri beharko da.



Osakidetza

ARABA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA ARABA

Pazientearen eranskailua

ANEXO I

**PAZIENTEEN GAUZEN ZAINKETA GOTOR-KUTXAN
CUSTODIA DE EFECTOS EN CAJA**

_____andreak/jaunak

D./D^a. _____

NANa/pasaporte _____ con D.N.I./ Pasaporte :

_____ (egun honetan) uzten ditu ospitaleko gotor-kutxan gordetzeko honako objektu
hauek entrega el día _____ para su custodia en la caja fuerte de este
hospital, los siguientes efectos personales:

**UZTEN DITUEN PAZIENTE EDO
PERTSONAK**

PACIENTE O PERSONAL QUE
REALIZA LA ENTREGA

LEKUKOA

TESTIGA/O

**GAUZAK JASO DITUT
(zeladorea/segurtasuna)**

RECIBÍ LOS EFECTOS
(celador/seguridad)

Sin.:

Fdo.:

Sin.:

Fdo.:

Sin.:

Fdo.:

NORBERAREN GAUZAK JASOTZEKO

ENTREGA DE EFECTOS PERSONALES

Goian aipatutako objektuak gaurko egunez jaso ditut. / En el día de hoy retiro los efectos arriba relacionados.

Sin./ Fdo. _____

Gasteizen, _____ ko _____ ren _____ a/ Vitoria-Gasteiz, a _____ de _____ de _____

Inprimaki hau eta NANa aldez aurretik erakutsita, zure gauzak jaso ahal izango dituzu ospitale honetako gotor-kutxatik, goizeko 9:00etatik 14:00ak bitartera / Previa presentación de este impreso, juntamente con el D.N.I., podrá retirar los efectos de la caja fuerte de este hospital en horario de 9:00 a 14:00.